

## 14. Juan Goitia Unibaso 1911-1997, bakiotarra

Komunikazioaren egilea: Jon Goitia Blanco (semea). Jon eraikuntzetako egituren aholkularia da eta aita lez, urteak daramatza penintsulako toponimia ikertzen, baita eguneroko bizitzaren gaztelerazko eta euskerazko berbak. Interneten *España es palabra vasca* liburua ikusgai dauka: <http://www.jrgoitiablanc.com/proyecto/>

### 14.1. Bizitza



Ezkerretik: Agustina, Jabi, Miren Argia, Jon eta, eskuman, Juan Goitia.

Jabi eta Jon be aitak hasitako ikerketa lanekaz jarraitzen dabe

Juan Goitia Unibaso Bakion jaio zan eta 7 urtekaz, ama hil jakonean, etxeokak Bermeora joan ziran. Inoiz ez eban gazteleraz berba egiten entzun eta ikasi eban lehenengo berba “Vela, Kandela”. Beste ume batek horrela esan eutson: *Erderaz kandelari vela esaten jatzo*. Eratzunaren zigorra jasan eban bere etxeko euskeraz ez egiteko eta gaztelerara pasatzeko.

Mekanikaria izan zan eta ez eban bestelako ikasketarik egin izan gura. Buru argikoa eta ideia askokoa zan eta tornu zaharren ardatzak egiteko gai zan, makinak konpondu, uretan murgildu. Adibidez, 8 brazetako hondoraino jaitsi zan ezer barik *Maitegarria* barkuaren brontzeko makineria berreskuratzeko, baita beste barku batena be.

Gerra denboran Goikoetxea traidorea desagertu zan goiz berean, Burdinezko harresiko planoak etsaiei eroateko, frontea zeharkatu eta Iparralderaino joan zan 1937an Bidasoa gauez zeharkatuz fokoen barridoa ondo kontrolatu ondoren, ez harrapatzeko.

Askotan bizartegietan egoten zan eztabaidatzen, *oilo* ez zetorrela *pollo* berbatik alderantziz baizik, edo *ata* ez zetorrela *pata*-tik.

### 14.2. Argitalpenak



1970ean “*España iberica o vasca?*” Argitaratu eban, eta hor ez neutson lagundu, urte horretan Kataluniara bizitzera joan nintzalako.

Geroago “*Pueblos de Bizkaia (toponimia)*”, idatzi eban eta hor toponimi asko ardantzekin eta mahastiekin lotuta dagozala esan eban eta eze bela erromatarrek ekarri Iberiara.

Bi liburu horietan gastatu eban dirua ez eban berreskuratu baina hirugarren liburu bat idatzi gur aizan eban: “*Voces derivadas del euzkera en el idioma castellano*”. Eta hor Damaskorako bidea topatu neba eta aitari animatu eta gastuak nire kontura izango zirela esan neutson, eta aukera

izan neban aitari hirugarren lan honetan laguntzeko.

### 14.3. Euskeraren jatorriari egindako ekarpen batzuk

Juan Goitiaren lana honako hauetan oinarritu zen:

- 1- Ordura arte idatzi zen guztia zalantzan jarri, babazorradak omen zirelako
- 2- Ez hartu kontuan euskerak latinetik gauza asko hartu ebazala, kontrakoa baizik.
- 3- Latinaren ahots asko Euroasian berba egiten zan hizkuntzaren ondorengoak zirala, hizkuntza zahar bat, Bizkaiko euskeraren antza ebana.
- 4- Berba horietako asko latinez sortuak izatea ezinezkoa zala, etimologiak ikusita.
- 5- Idazki zaharrak soilik irakurrita ezingo genduala euskeraren jatorria ulertu, milaka urtetako hizkuntza dalako eta horren ganean ez dalako ia ezer idatzi, nahiz eta bere historia latinean eta hizkuntza erromantzetan gordeta egon.

Nire aitarekin solasaldi asko izaten nebazan eta askotan aita haserretzen jatan kontrakoa esaten baneutson eta esaten eustan: "Jun zaitetz Bartzelonara, gaur ostabere gaixotu nozu". Ni Bartzelonara itzulzen nintzenean, handi gutxira deitzen eustan: "Ia, Jon, kakati, noz etorriko zara barriro hamendik asko daukazu ikasteko eta.

Horrela askotan eta, azkenean, berbak deskonponsetzen ikasi eta ondorio hau atera neban: edo Juan Goitiak irakatsi eustan moduan egiten dogu edo bestela ez dogu inoz egia aurkituko.

Interneten eskegita dagoen "España es palabra vasca" aitarengandik jasotako etimologia asko sartu dodaz, adibidez:

Vi t- Viña - Esp - espiral - espiritu - aceite - oriu - ori - oleum  
Arotxa - arte - hacha - atxkora - jarra - atxurra - altar - orratxa - arrecife - vasija - masamorra.  
Rey - alcalde - alkate - garete - cautivo - reliquia  
Dempora - calendario - reloj.  
Ale, Alegiña - ojala - bezala- ekarriala - alabada - alaere - alega - al - aldala - alantze  
Gorri, rojo, roig - colorin- colorete - alba - Alpes - baltza / beltza - bal, bel, gal - mor - man - musulman - morado - goibel - zabel - gala.  
Oste - horizonte - ostia.  
Gar - andi - gigante - grande - grandioso - garrantzi - ano - arrano - anciano - enano - verano - Maitegarria - Soragarria.  
Cisma - cizalla - cis-zas - tris -tras - tijeras - artasiak - ziar - cisco - cicatriz - sisa / sisar.  
Carroña - engaño - añagaza.  
Tenazas - tensor - berbiqui - barca - chimenea - persiana - chabola - serrin.  
Txin - china / txina - txinarri - arritxingar - pizarra - guijarro - arbela - urre - urregorri - aureo - aureola - mena - menasta - erremena - arena - playa - lastre  
Mariposa - pato - ollarra - capar - caracol - barekorkola - araña - toro - lidia - cabra - perro - rabia - cachorro - zorra - azeria - luky - ruiseñor - calamar - karramarro - amorrotza - arrano - bicho - mamarracho - perdiz - liebre - gorriño - marsopa / izurdi - jabali / basurdi - ballena / balea.  
Za, aza, azal, azala - zapata, zapato - zamarra - bolsa - bolsillo, coraza - zaherir - zagona - zagal - salchicha.  
Mecachis.  
Zeru / zerru - horizonte - urtzia - urtzi -ortzgarbi - ortzi - tubo - ostroi - ortzanz - oskorri - relampago - eder  
Iz - izpillo - geizpe - eguzki - izarra - goiz - beiz - vispera - arco iris - prisma - rayo.

Aztelena - azteaskena - eguaztena - eguena - egubakoiz - illazki - hogar - riela - perla.

Ur / ura / ure - arda-ura - vit- ur - sagar-ura - ori-ura - ma - ib - iturria - libeulia - ibar - ibon - humedad - negu - guad - uadi - guadiana - uadera - tzistill - iztill - destilar - estalactita-estalagmita.

Izaro

Gisona, guisajo - gigante - bizarro - persona.

Kikille / gikille - sakille - astokillo - vergonya .

Koko - El pelo - pelota - ir en pelotas - billotxik - horripilar - bildur - billotza, aboa / boca - voz - palabra - alegoria - acento - lengua - palike - charla - garganta - gargajo - surre - atxamar - beatxak - atxazal - arañar - biotx - eperdia -zabela.

Serio - gezur - imbecil - silencio - cagalera.

Salario - errota - pake.

Musica - mus - justicia - ortzziri / urtziri - paliza - armonia, ademan.

Arima - animado / inanimado - esperanza - caridad - alimento.

Cultura, cultivar, cultivo - ale - calle - semilla - semejanza.

Tor - trola - turbia - turbante - tormenta - torbellino - torsion - torcedura - tornillo- "Ha agarrado una turca" - toro - tortura - aturdir - turulato - torpe - torta - torcal -cala.

Bere semek, Jabier eta Jone klanarekin jarraitu dabe euskeraren abots zaharrak latinaren oinarria dirala frogatu eta Italiako toponimoek hemengoan arau bardinak daukatela.

Adibidez:

ACACIA de AKA = cabra + ZI = pincho + A = articulo >>>> pincho cabra.

HORRIBLE de OR en punta, hacia arriba + I = muchos + BIL / PIL= pelo, "pelos en punta"

Este ZI aparece en toponimos como GIBRALTAR / ZIBRALTAR, una roca alargada con punta.

Como GRANDE deriva de GAR = grande, largo en euskera + ANDI = grande, algo doblemente grande, nada de GRANDIS que carece de sentido.

"I" puede hacer el papel de pluralizador, de algo en punta, o de algo con filo, asimismo sirve para reforzar un sentimiento, como en MAITEGARRI, donde el MAITE se refuerza con GAR + el "I" que lo refuerza, GARRI es "mucho, muchisimo"

ANTZI es importancia por si mismo, y entonces GARANTZI es "muy importante" luego cuando decimos GARANTZI ANDIKOA DA nos sobra el ANDI, asi era la lengua vasca.

(\*) algo demostrativo de como funciona la lengua vasca.

ESTELA deriva de IZ = agua + TEL / TEIL= corte + A = articulo, hacer estelas es cortar el agua con la mano en una charca, en el mar con un barco, etc. En cambio esto podemos obtener de los latinistas, pura y santa ignorancia:

Estela: Rastro que deja tras de si en el agua o en el aire un cuerpo en movimiento. "diviso la estela blanca del avion sobre el cielo azul". Origen: Voz patrimonial del latin aestuaria, plural de aestuarium 'agitacion del mar', con cambio inexplicado de r por l. Ni la estela es una agitacion del mar, ni la voz viene desde el latin.

**TELLATU** es **TEIL + A + TO / TU** = el cortado en dos vertientes para escurrir el agua, no viene de teja, ya que hay tejados de pizarra, de paja, de teja, de barro, de excremento vacuno, de hojas de palmera, etc.

Juanito Goitiarentzat Michelenak etimologia eta toponimia lantzeko behar ziran ezagutzak ez eukazan eta horregaitik ez eban asmatzen, latinzale porrokatua zalako eta herentzia txar bat itxiko ebala.

Gaur egun Gorrochateguik eta Lakarrak, bere eztelaren (\*) jarraitzaileak Iruña-Veleian egin behar ez dena ederto erakutsi deuskue, Euskaldun berantiarraren gaian lehengoak ere ezin txarrago jokatu dau eta ez dabe inolako omenaldirik merezi egin dabenagatik.

Niretzat Juan Goitia Unibasok bai merezi dau omenaldia bide barria igiri ebalako eta berak irakatsitakoa neure erizpideen araberean jarraitzen dot eta espero dot egunen batean omenaldi bat izatea, "homenaje" bat eta ez "memonaje" bat (memo bati egiten jakon omenaldia).

Eskerrik asko Juan bidea erakusteagaitik, burujabe, "*librepensador*", ausart, zorrotz eta egiaren laguna izateagaitik eta euskeran alde hainbeste egiteagaitik!

Askok gorrotatzen daben hizkuntza, eten barik irainduta: "lengua de piedra", "lengua inutil", "lengua sin sentimientos", "lengua inutil para filosofar"...

Eta ia gauza guztien sortzailea da ***iMondo cane!***

